

Boluntariotzako erakundea izatea



bolunta

boluntariotza eta elkarrentzako agenzia
agencia para el voluntariado y las asociaciones



Argitaratzailea: **bolunta** | boluntarioria eta elkarteentzako agentzia

Ronda, z/g, 48005 Bilbo.

Tfnoa.: 94 416 15 11.

bolunta@bolunta.org

www.bolunta.org

1. argitaraketa: 2006ko ekaina.

Diseinua: Suspergintza Elkartea.

Inprimaketa: Berekintza.

Lege gordailua:

Argitalpen honetako edukiak erabili ahal izateko, iturria aipatu behar da.

Aurkibidea

1 Sarrera	4
2 Zer da boluntariotza?	6
3 Zer da boluntariotzako erakunde bat?	8
4 Erakundeen betebeharrak	12
5 Printzipio etikoak	16
6 Arau esparrua	20
7 Bibliografia	23
8 Eranskina: Boluntariotzako erakundea al gara?	24

Sarrera

Boluntariotza betidanik existitu izan da. Ez da gauza berria pertsonak libreki eta inolako ordainik jaso gabe elkartzea, premia sozialak asetzeko edo gizarte egoera ahuleko taldeei laguntzeko. Berria dena zera da, “boluntariotza” izena eta bere erabileraren orokortzea. Joan zen mendeko 80ko hamarkadaren amaieratik, boluntariotzaren kontzeptua eta gizarte modernoaren garapenarentzat duen garrantzia jendartean eta erakundeetan sartzen joan da, eta horrek, azkenean, boluntariotza erregulatu eta sustatzeko arau garapena ekarri du.

Paradoxikoki, gizartearen onespina jasotzea lortu duen arren, boluntariotzaren kontzeptua zabartu egin da neurri batean. Izan ere, oraindik mito, aurreiritzi eta uste oker asko dago boluntariotzaren esanahiaren eta garrantziaren inguruan. Are gehiago: oraindik ez dago boluntariotza zer den eta zer ez den zehazten duen definizio adosturik. Horren ondorioz, mota guztietako elkartean parte hartzen duen jende ugari ez dauka argi

boluntarioa den ala ez; eta are deigarriagoa dena, gizarte erakunde asko ez dira gai boluntariotzakoak diren ala ez esateko. Ez da harritzekoa, beraz, pertsonak zein erakundeek boluntariotzarekiko duten ikuspuntua hain aldakorra izanik, paradoxak sortzea; esaterako, helburu, egitura eta partaidetza modu berberak dituzten bi elkartetik, batek bere burua boluntariotzako erakundetzat jotzea eta besteak ez.

Sarritan, identifikazio hori erakundeak edo bere kideek boluntariotzaren fenomenoarekiko duten sentikortasunaren menpe egoten da, ongi zehazturiko ildo komunak oinarri dituen irudikari kolektibo estandarizatu baten menpe egon beharrean. Definizio falta hori oso larria da, bi disfuntzio eragiten dituelako. Alde batetik, argi eta garbi partaidetzazkoak diren hainbat ekimeni (guztien ongiaren alde eta irabazi asmorik gabe lan egiten dute, eta beren langile gehienek ez dute ordainik jasotzen) boluntariotzak beraiekin

zerikusirik ez duela iruditzen zaie, eta ez dute beren burua boluntariotzako erakundetzat hartzen. Horren ondorioz, ezin dituzte eskuratu boluntariotzarentzat berariaz sortutako zenbait baliabide. Bestalde, esku-hartze solidarioa egiten ez duten, helburu partikularrak dituzten edo boluntarioen oso partaidetza txikia duten hainbat taldek boluntariotzako erakundetzat jotzen dute beren burua, gauzak oraindik gehiago nahastuz.

Eskuliburu honen bidez, **boluntak** eztabaidan sartu nahi du, ideiak eta jarraibideak eskainiz zalantzak argitzeko, mugak zehazteko, esparruak eta kontzeptuak finkatzeko; labur esanda, bere esperientziatik abiatuz, boluntariotzako erakundea eta gizarte ekintza boluntarioa zer den eta zer ez den azaldu nahi du.



Zer da boluntariotza?

Boluntariotza gizarte partaidetza mota bat da. Lehenik eta behin, esan beharra dago partaidetza mota asko daudela; denak dira baliozkoak, justiziatik abiatuz demokrazia, bizikidetza, aurrerapena eta oparotasuna sendotzen laguntzen duten bitartean. Partaidetza guztiak, ordea, ez dira boluntariotzakoak.

Gizarte partaidetza “boluntariotza” izateko, hurrengo baldintzak bete behar ditu:

- | **librea** izan behar du, partaideen ekimenez sortua eta kontzienteki eta borondatez gauzatua;
- | **autonomoa** izan behar du, botere publiko eta interes ekonomikoetatik askea;
- | **bidezkoa** izan behar du, giza eskubideekiko errespetuan oinarritua;
- | **antolatua** izan behar du, beste pertsona batzuekin sortua, gutxieneko

egitura bat duen eta elkarlanean diharduen irabazi asmorik gabeko gizarte erakunde baten esparruan;

- | **solidarioa** izan behar du, pertsonaren eta gizarte aldaketaren aldekoa;
- | **desinteresatua** izan behar du, helburu partikularrik gabekoa eta interes orokorraren aldekoa;
- | **doakoa** izan behar du, ordainketarik eta lan, merkataritza edo funtzionario harremanik gabekoa, betebehar pertsonal edo juridikoen ondorioa izan gabe;
- | **osagarria** izan behar du, ez ditu zerbitzu profesional ordainduak ordezkatu eta ezta herri erakundeen ekintza ere.

Beraz, pertsona boluntarioa zera izango litzateke: bere borondatez, doan eta modu desinteresatuan guztien ongiaren alde diharduen pertsona, irabazi asmorik gabeko gizarte erakunde autonomo baten

barruan. Guztien ongi edo interes orokor hori gizarte ekintzaren hainbat esparrutan gara daiteke, aldaketa globaletik hasi eta talde jakinen aldeko lanera arte.

Boluntariora espazio publikoan parte hartzeko modu bat da; hurbileko partaidetza inklusiboa, boluntarioa den pertsona gogobetetzen duena; premia sozialei jarrera kritiko eta kreatibo batetik erantzuten dien partaidetza, ehun soziala berritzen eta etengabe sortzen duen konpromisozko harreman bat.



Zer da boluntariotzako erakunde bat?

Euskal Autonomia Erkidegoan gizarte erakunde ugari daude, gizarte modernoaren konplexutasuna islatzen dutenak. Erakunde horien esku-hartze eremuak oso anitzak dira, eta gauza bera esan daiteke helburuei, antolamenduari, tamainari, ideologiari, jardueraren bolumenari eta baliabideei dagokienez. Erakunde bakoitzaren ontasunari buruzko balorazio etikoak alde batera utzita, bereizketa bat egin beharra dago boluntariotzakotzat har daitezkeen erakundeen eta izaera hori ez dutenen artean.

Hasteko, boluntariotzak bete beharreko baldintzak azpimarratu behar ditugu. Beraz, boluntariotzako erakundea hurrengo ezaugarriak dituen gizarte erakundea izango litzateke:

... **irabazi asmorik gabekoa**,
... **egitura formala** duena,
... **printzipio solidarioetan** oinarritua eta giza eskubideak errespetatzen dituena,
... botere publiko eta pribatuekiko **autonomoa**,

... kideei **libreki eta doan parte hartzen** uzten diena,
... **interes orokorraren** alde lan egiten duena, aldaketa globala bultzatuz edota talde edo arazo sozial jakinetan esku hartuz,
... eta profesionalen nahiz herri erakundeen ekintza **osatzen** duena.

Alabaina, “Boluntariotzako erakundea” benetan zer den zehazteko, aurreko definizioari beste hiru elementu gehitu behar zaizkio gutxienez:

- 1 Pribatuak dira, partikularrek sortuak; helburu komun bat erdiesteko elkartzen diren herritar batzuen ekimenez, denboran irauteko asmoz.
- 2 Kide gehienak boluntarioak dira; erakundeak langile ordainduak ere eduki ditzake, baina boluntarioak gehiengoa izan behar dira.

3 Erakundearen jarduera gehienak boluntarioek egiten dituzte; langile ordainduak baldin badaude, erakundearen egitura mantentzeko zeregin logistikoak eta osagarriak burutuko dituzte soilik; jarduera nagusiak boluntarioek egingo dituzte.

2. eta 3. puntuei dagokienez, esan behar da boluntarioa eta bazkidea ez direla gauza bera; bakoitzak bere eskubide eta betebeharrak bereiziak ditu. Boluntarioak erakundearen barruan etengabe edo noizean behin zereginen bat burutzen duten pertsonak dira; bazkideak, berriz, kuota ordaintzen duten pertsonak dira, eta erakundearen gobernaketan parte hartzeko eskubidea dute. Alegia, pertsona bat erakundeko boluntario izan daiteke bazkide izan beharrik gabe (erabaki estrategikoetan ez du hitzik edo botorik edukiko); eta erakundeko bazkide izan daiteke boluntariotzako zereginik burutu beharrik gabe.

Gizarte arloan diharduten entitateek izen desberdinak izaten dituzte, garrantzi gehien ematen dieten alderdiaren arabera. Esate baterako, “erakunde” batean egitura gailentzen da, eta “elkarte” batean komunitate esparrua. Botere publikoekiko autonomia azpimarratzen bada, GKE bat izango da (Gobernuz Kanpoko Erakundea), eta entitateak garapenaren alde lan egiten badu, sigla horri G bat gehituko zaio (GGKE). Azkenik, entitateak irabazteko asmorik ez badu, IAGE izena erabiliko da (Irabazi Asmorik Gabeko Erakundea). Beste termino batzuk ere erabiltzen dira: sarea, plataforma, fundazioa, taldea, koordinakundea, federazioa... Izen horietako batek ere ez ditu besteak baztertzen, eta guztiak izan daitezke boluntariotzako erakundeak, lehen aipatutako baldintzak betetzen badituzte.

Arau esparruari dagokionez, Boluntariotzaren Euskal Legeak honela definitzen ditu boluntariotzako erakundeak: interes orokorreko

jarduerak burutzen dituzten irabazi asmorik gabeko erakundeak, nagusiki boluntarioz osatuak, pertsona horiek ekintza programa gehienez arduratzen direlarik. Legearen arabera, “interes orokorreko jarduerak” honako hauek dira:

asistentzialak, gizarte zerbitzuetakoak, gizalegezkoak, hezkuntzakoak, kulturalak, zientifikoak, kiroltakoak, osasun arlokoak, garapenerako lankidetzakoak, ingurumenaren arlokoak, gizarte ekonomiakoak, ikerketakoak,



partaidetza sustatzen dutenak, boluntarioritza sustatzen dutenak edo antzerako beste batzuk. Goian aipatutako baldintzak betetzen dituen entitate bat boluntarioritzako erakundetzat jo daiteke. Edonola ere, legearen arabera, boluntarioritzako erakunde gisa aitortua izateko eta herri erakundeek eskainitako baliabideak eskuratu ahal izateko, erakundeak dagokion erregistroan inskribatu beharra dauka. Horrek esan nahi du erakundeak estatutuak, barne araudia, gobernu organoak eta abar eduki behar dituela. Indarrean dagoen legearen arabera, boluntarioritzako erakunde batek har ditzakeen forma juridikoak irabazi asmorik gabekotzat jotzen direnak dira: elkartea eta fundazioa.

Horrez gain, Boluntarioritzaren Euskal Legeak boluntarioritzako erakundeek burutu ditzaketen ekintza motak zehazten ditu. Honako hauek dira:

! **Garapenerako lankidetzak:** laguntza humanitaria, nazioarteko proiektuak, iparraldearen eta hegoaldearen arteko harremani buruzko sentsibilizazioa, etab.

- ! **Ingurumena:** ingurumenaren, naturaren eta animalien defentsa.
- ! **Soziala:** gizarte egoera ahuleko taldeen aldeko lana.
- ! **Komunitarioa:** komunitate hurbilenaren (auzoa, herria...) eta bertako bizilagunen aldeko lana.
- ! **Kulturala:** artearekin eta kulturarekin loturiko edozein alderdiren sustapena eta babesa.
- ! **Gizalegezkoa:** zehaztu gabeko boluntarioritza, mota guztietako ekintzetan parte hartzen duena, bereziki gizartearen, kulturaren edo kirolaren arloan.

Erakundeen betebeharrak

Lehen esan bezala, boluntariotzaren fenomeno soziala araututa dagoenez, boluntariotzako erakundeek baldintza batzuk bete behar dituzte legez aitortuak izateko. Legearen arabera, honako hauek dira boluntariotzako erakundeen betebeharrak nagusiak.

1 Boluntariotzaren Barne Estatutua

Boluntariotzako erakundeak Boluntariotzaren Barne Estatutua edo Boluntariotzaren Gutuna delakoa eduki behar du. Bertan, erakundeak boluntarioen partaidetza bultzatu eta arautuko duten printzipioak eta arauak daude jasota. Boluntarioen eskubideak eta betebeharrak derrigorrez azaldu behar dira Barne Estatutuan, eta boluntarioak onartzeko eta kanporatzeko irizpideak ere bai. Horrez gain, alderdi ideologikoak jaso beharko lituzke, esate baterako, boluntariotzaren kontzeptua, entitatean duen garrantzia, etab. Dokumentu hau eta erakundeak Estatutuak gauza desberdinak dira. Estatutuak

bazkideen partaidetza arautzen dute (ikus dugunez, beraien eskubide eta betebeharrak ez dira boluntarioenak bezalakoak).

2 Istripu eta Erantzukizun Zibileko Aseguru Poliza

Boluntarioek burutzen dituzten jarduerak arriskutsuak izan daitezke. Horregatik, erakundeak poliza bat sinatu beharra dauka hurrengo alderdiak estaltzeko: osasun laguntza, heriotza eta baliaezintasuna; boluntariotzako ekintzak egiterakoan izandako istripuak; boluntarioak bere jardunean hirugarrenei eragin diezazkien kalte galerak.

3 Boluntarioak artatzeko prozesuak

Boluntarioek ezin dituztenez erabili bazkideentzat estatutuetan aurreikusitako partaidetzarako bideak (batzarrak, hauteskundeak...), mekanismoak ezarri beharko dira erakundearen aktiboki esku har dezaten:

beraien lana egiteko beharrezkoak dituzten informazioa, prestakuntza, orientabidea, jarraipena eta laguntza emango zaie. Komenigarria da, halaber, boluntarioak hartzeko eta dinamizatzeko prozesuez arduratuko diren pertsonak izendatzea.

4 Gastu estaldura

Boluntarioak erakundeari egiten dion ekarpena bere zereginetan ematen duen denbora da. Jardueren prestaketa eta gauzatzetik ondorioztatzen diren gastu guztiak erakundeak ordaindu beharko ditu. Erakundeak ez baldin badu baliabide nahikorik gastu horiek estaltzeko, boluntarioari aldeztu behar berri eman beharko dio, eta harekin ados jarri beharko da gastuak ordaintzeko.

5 Alta eta baje erregistroa

Erakundeak boluntario guztien erregistroa eduki behar du. Legeak ez du ezer esaten erregistroa

kudeatzeko eta antolatzeko moduari buruz; nolana ere, erregistroak boluntario bakoitzaren datuak jasotzeko behar ditu, alta eta baje buruzko informazio eguneratuaz gain.

6 Erakundearen eta boluntarioaren arteko konpromiso idatzia

Ezinbestekoa da boluntarioaren eta erakundearen arteko harremana formalizatzea, alderdi bakoitzak argi eduki ditzan bere eskubide eta betebeharrak. Idazki batean, beraz, entitatearen datuak, boluntarioarenak eta bien arteko harremanaren nondik norakoak jasoko dira (dedikazioa, eskubideak eta betebeharrak, konpromisoaren iraupena, etab.).

7 Boluntario gisa aritu izanaren ziurtagiria

Boluntarioak erakundeko kidea dela edo berarekin lan egin duela erakusten duen ziurtagiria jasotzeko



eskubidea du. Erakundeak, beraz, boluntariotzaren iraupena eta ezaugarriak jasotzen dituen ziurtagiria egingo du, boluntarioak hala eskatuz gero.

8 Akordioak betetzea

Erakundeak boluntarioekin idatziz nahiz ahoz egindako akordio guztiak bete beharko ditu.

Printzipio etikoak

Boluntariotzako erakundeen kopuru gero eta handiagoa dela eta, nahitaezkoa da beraien jarduera gidatuko duten printzipio etiko batzuk ezartzea; erakundearen gardentasuna, barne demokrazia eta soiltasuna bermatuko dituen esparru bat finkatzea. Hain zuzen ere, printzipio horiek behar-beharrezkoak dira erakunde horietako bakoitzaren izaerari (soziala, partaidetzazkoa, irabazi asmorik gabekoa eta solidarioa) eusteko.

Hona hemen printzipio garrantzitsuenak.

- 1 Ekintza elkartegintzan eta partaidetza demokratikoan oinarritzea.
- 2 Gizarte aldaketaren alde borrokatzea, elkartasun, berdintasun eta justizia sozialetik abiatuz eta pertsonaren duintasuna eta eskubide bortxaezinak errespetatuz.
- 3 Giza eskubideak eta gizarte eskubideak ikuspuntu kritiko batetik defendatzea,

eskubideak urratzen diren egoerak salatuz eta elkartasuna, bakea, justizia, garapen iraunkorra, tolerantzia, berdintasuna eta abar aldarrikatuz.

- 4 Legearen arabera jokatzeko eta gutxieneko egitura bat edukitzea.
- 5 Egitura irekiak eta partaidetzazkoak edukitzea, karguak aukeratzeko mekanismo demokratikoez hornituak.
- 6 Irabazi asmorik ez edukitzea, ezta merkataritza helbururik edo antzerakorik ere.
- 7 Kide guztien koordinazioa, erantzukizun partekatua eta partaidetza bultzatzea.
- 8 Kudeaketa gardena egitea, batez ere alderdi ideologiko eta ekonomikoei, giza baliabideei eta ekintza programei dagokienean; emaitza ekonomikoak bazkideei, emaleei eta alderdi kontrarioei jakinaraztea.
- 9 Boluntarioak artatzeko prozesuak bermatzea, boluntarioei informazioa, prestakuntza, jarraipena eta laguntza eskainiz.

- 10** Kalitate irizpideak erabiltzea lana behar bezala egiteko.
- 11** Kideei prestakuntzarako baliabideak eskaintzea eta beraien ahalmenen garapena bultzatzea, lanerako beharrezkoak diren jarrerak eta teknikak beregana ditzaten.
- 12** Gizartearen hobekuntzan aktiboki parte hartzea, interes orokorreko jarduerak burutuz eta pertsonaren aldeko konpromisoa erakutsiz.
- 13** Beste erakunde eta gizarte eragile batzuekin elkarlanean aritzea, sareen sorrera bultzatuz indarrak batzeko eta ekintza nahiz zerbitzu komunak antolatzeko.
- 14** Norberaren mugak ezagutzea, erakundearen baliabideak, helburuak edo ekintza esparrua gainditzen duten gauzetan ez sartuz.
- 15** Jarduerak nagusiki boluntarioen bidez egitea.
- 16** Boluntarioek ez egitea langile ordainduei dagozkien zereginak.
- 17** Egiturak boluntario berriei irekita egotea.
- 18** Aldian behin informazio osatua eta egiazkoa ematea hurrengo alderdien inguruan: ekintza ildoak, baliabideak, helburuak, programak, gobernu organoen osaketa, emaitzak, etab.
- 19** Herritarrak sentikor bihurtzea erakundeak esku hartzen duen errealitatearekiko eta egoeraren inguruko informazioa ematea, paternalismoan, katastrofismoan, sentimentalismoan edo ikuspegi idilikoetan erori gabe.
- 20** Erakunde publiko eta pribatuekiko burujabea izatea, bere helburuak, estrategiak, alderdi kontrarioak eta abar libreki zehazteko. Edozein erakunderekiko edo jarrera ideologikorekiko lotura edo menpekotasuna agerian uztea.
- 21** Edozein manipulazio mota saihestea edo hirugarren batzuen publizitate agente izateari uko egitea, hirugarren horiek estrategia edo interes komertzialak badituzte.

22 Gizarte politiken plangintza, ezarpen eta ebaluazio prozesuetan parte hartzeko eskubidea aldarrikatzea, batik bat herritarren partaidetza, elkartasunarekin eta boluntariotzarekin loturiko gaiei dagokienez.



Arau esparrua

Boluntariotzaren erregulazioa 90eko hamarkadaren erdialdean hasi zen, estatu mailan nahiz autonomia erkidegoetan. Legeak ez ezik, boluntariotza aitortu eta bultzatzaera zuzendutako ekintza planak eta programak ere sortu dira. Arau garapen horrek hiru helburu zituen: gizarte ekintza boluntarioa aldarrikatzea herritarren konpromiso eta partaidetzarako bide gisa; boluntariotzaren eta bere erakundeen arteko harremana zuzenduko duten gutxieneko irizpideak finkatzea; eta, azkenik, erakundeak boluntariotza aitortu eta sustatzera behartzea.

Euskal Autonomia Erkidegoan, ekainaren 25eko 17/1998 Legeak edo Boluntariotzaren Legeak arautzen du gai hau. Boluntarioak dituzten, interes orokorreko jarduerak egiten dituzten eta irabazi asmorik ez duten erakunde guztiei eragiten die Legeak. Herri administrazioek boluntariotzaren sustapenaren inguruan dituzten betebeharrak ere ezartzen ditu, beti ere bakoitzaren eskumenak eta

aurrekontua kontuan izanik. Esate baterako, administrazioak baliabideak eskaini behar dizkie boluntarioak dituzten erakundeei, diru-laguntzen, hitzarmenen, prestakuntzaren edo aholkularitzaren bidez. Eta administrazioak boluntariotzari buruzko ikerketak egin eta bere balioak zabaldu behar ditu, gizarte ekintza boluntarioa sustatzeaz gain.

Geroago, aipatutako legea osatu egin zen irailaren 1eko 169/2000 eta otsailaren 18ko 30/2003 dekretuen bidez. Lehenengoak Boluntariotzako Erakundeen Errolda Orokorraren araudia jasotzen du. Aipatutako erregistroak beraien helburuak erdiesteko boluntarioak erabiltzen dituzten erakundeak biltzen ditu. Errolda orokorrean inskribatzeko, ezinbestekoa da aldeaz aurretik elkartean edo fundazioen erregistroan izena ematea. Erroldan dauden entitateek boluntariotzako erakundeentzat berariaz sortutako diru-laguntzak eskura ditzakete, eta Boluntariotzaren Euskal Kontseiluan sar daitezke.

Hain zuzen ere, bigarren dekretuak Boluntariotzaren Euskal Kontseiluaren funtzionamendua arautzen du. Herri administrazioen, boluntariotzako erakundeen eta beste gizarte-eragileen arteko bitartekari gisa jardutea da Kontseiluaren egiteko nagusia. Organo aholku-emaile paritarioa da, eta administrazioaren eta gizarte-erakundeen ordezkarietz dago osatuta. Boluntariotzaren Legeari eta Kontseiluak egindako lanari esker, 2003an Boluntariotzaren I. Euskal Plana prestatu eta onetsi zuten. Planak indarrak batu ditu eta sinergiezt baliatu da, hurrengo helburuak erdiesteko: boluntariotzarekin zerikusia duten eragileen ideia eta interes guztiak biltzea; boluntariotza sendotzeko eta hazteko aukerak gauzatzea; boluntariotzaren prestakuntza, laguntza eta partaidetza prozesuak hobetzea; boluntariotzako erakundeak indartzea; hitz batean, ekintza boluntarioaren kalitatea hobetzea.

Boluntariotzari dagokionez, erakundeen aintzatespenaren eta erregularizazioaren bilakaera

ESTATUAN ETA EUROPAN

1983 Europako Kontseiluak Boluntariotzari buruz emandako ebazpena

1986 Nazio Batuen Batzar Nagusiak boluntariotzaren garrantziaren inguruan emandako ebazpena eta Boluntariotzaren Nazioarteko Egunaren sorrera

1996 Boluntariotzaren Lege Espainiarra

1997-2000 Boluntariotzaren I. Estatu Plana

2001 BOLUNTARIOTZAREN NAZIOARTEKO URTEA

2001-2004 Boluntariotzaren II. Estatu Plana

2005-2009 Boluntariotzaren III. Estatu Plana

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN

1998 EAEko Boluntariotzaren Legea

2001 Boluntariotzako Erakundeen Euskal Erroldaren sorrera

2002 Boluntariotzaren Euskal Kontseiluaren sorrera

2003-2006 Boluntariotzaren I. Euskal Plana

2007-2010 Boluntariotzaren II. Euskal Plana
(*prestatzen ari dira*)

Bibliografia

- | Código de conducta de las ONGD, Coordinadora de ONGD-Euskadi, Bilbao 1998.
- | Declaración de principios y Código Ético del Euroforo Mediterráneo del Voluntariado, Observatorio Mediterráneo del Voluntariado, Valencia 2000.
- | Código Ético de las Organizaciones de Voluntariado, Plataforma del Voluntariado de España, Madrid 2000.
- | Boluntarioa izatea da..., **bolunta**, Bilbo 2002.
- | *Boluntarioei buruzko ekainaren 25eko 17/1998 euskal legea*, EHAA 1998-07-13.
- | *169/2000 Dekretua irailaren lekoa, Boluntariotzako Erakundeen Errolda Orokorra*, EHAA 2000-09-29.
- | *30/2003 Dekretua, otsailaren 18koa, Boluntariotzaren Euskal Kontseiluaren funtzionamenduari buruzkoa*, EHAA 2003-02-27.
- | Boluntariotzako Lehen Euskal Plana, Eusko Jaurlaritza, Vitoria-Gazteiz 2003.
- | Manual de gestión asociativa, **bolunta**, Bilbao 2004.
- | Elkartegintzaren bilakaera Bizkaian 1996-2005, **bolunta**, Bilbo 2006.

Eranskina: Boluntariotzako erakundea al gara?

Boluntariotzako erakundea zareten jakin nahi baduzue, erantzun hurrengo galderei.

	BAI	EZ	EE/ED
01 Irabazi asmorik gabeko erakundea gara.			
02 Interes orokorreko jarduerak burutzen ditugu, gizartearen edo pertsonaren alde.			
03 Jarrera solidarioa eta gizartea aldatzeko gogoia dugu.			
04 Gure lanaren irizpide nagusiak berdintasuna, justizia soziala eta giza eskubideekiko errespetua dira.			
05 Gure ekintzaren oinarriak elkartegintza eta partaidetza demokratikoa dira.			
06 Hurrengo arloetan dihardugu: gizartea, komunitatea, gizalegea, kultura, garapenerako lankidetzak, ingurumenaren defentsa edo antzerako beste batzuk.			

	BAI	EZ	EE/ED
07 Hurrengo jarduerak burutzen ditugu: asistentzialak, gizarte zerbitzuetakoak, gizalegezkoak, hezkuntzakoak, kulturalak, zientifikoak, kiroletakoak, osasun arlokoak, garapenerako lankidetzakoak, ingurumenaren arlokoak, gizarte ekonomiakoak, ikerketakoak, partaidetza sustatzen dutenak, boluntariora sustatzen dutenak edo antzerako beste batzuk.			
08 Gure egiturak gardenak eta irekiak dira.			
09 Burujabeak gara eta gure helburu zein estrategiak libreki zehazten ditugu.			
10 Esku hartzen dugun errealitateari buruzko sentsibilizazio lana egiten dugu.			
11 Gure ustez, boluntariora pertsonak gizartearen hobekuntzaren alde aktiboki eta kontzienteki parte hartzeko duen aukera bat da.			
12 Gure erakundea boluntarioek osatzen dute nagusiki, eta beraiek burutzen dituzte ekintza programa gehienak.			

	BAI	EZ	EE/ED
13 Boluntarioei ez diegu ordainsaririk ematen.			
14 Boluntarioen eginkizunak eta haien erabaki espazioak zehaztuta dauzkagu.			
15 Boluntarioek ez dituzte langile ordainduei dagozkien zereginak burutzen.			
16 Boluntarioak hartzen eta dinamizatzen dituzten langileak ditugu.			
17 Boluntarioei erakundearen parte hartzen uzten diegu.			
18 Boluntario berriei irekita gaude.			

Emaizten interpretazioa

Galdera guztiei baietz erantzun badiezue, zalantza izpirik gabe, boluntariotzako erakundea zarete.

1., 2., 12. edo 13. galderari ezetz erantzun badiezue, ez zarete boluntariotzako erakundea.

Bi galdera edo gehiagori ezetz edo “ez daki/ez du erantzuten” erantzun badiezue, ez dago garbi boluntariotzako erakundea zareten. Gogoeta egin beharko zenukete, eta zuen zalantza guztiak argitu.

Boluntariotzako erakundea ez izateak ez du esan nahi erakundearen lanak garrantzi gutxiago duenik edo haren beharra txikiagoa denik. Partaidetza kudeatzeko beste modu bat da, besterik ez.